

Gotzon Barandiaran Arteaga

IDAZLEA

17 baietz

Iruñean barna hiru ordutik gora korrikan eman genituelarik, ezer nabarmen-tzekotan, parte-hartze itzela azpimarra-tu genuen furgonetakideok.

Biharamunean jakinarazi ziguten Iruñe-ko udalak uko egin ziola erosi uste zuten 2.000 euroko kilometroa ordaintzeari. Arra-zoiak Alberto Catalanek argitu zizkigun: leku-koak ikurrina zeroan aldean eta zenbait korri-kalarik preso dauden pertsonen argazkiak zeroatzaten. Gasteizera heltzeko lau bat egun falta zirela beste dei batek aztoratu gintuen: Dignidad y Justicia elkarte parapolizialak Korrika gelditzeko eskaria sartu zuen auzitegietan terrorismoaren aldekoa dela arra-zoitzat. Askoren lehen ondorioa hauxe: azken Korrika izango ote da aurtengoa? Debekatuko ote digute 2011an Korrika ospatzea? Errotuegi dugun galtzaile babesba-koaren gogoeta. Korrika hasi eta amaitu bitartean furgonetetan aritu garenon artean, duela hogeit urtetik aritutakoak egon dira, beste batzuk azken bost edizioetan ibili gara eta denok gogoratzen genuen umeta-tik egin dugula izerdia euskararen aldeko jai erraldoiengan. Halaber, denok ekarri genuen akordura arrazoi politikoengatik preso egondako per-sonen argazkiak beti egon direla presente Korrikan, unean uneko gatazka sozial, politi-



INIGO AZKONA

ko zein linguistikoen aldarrikapenerako era-kusleihoa izan dela betidanik, Korrika ez antolatzaileek bultzatu edo sostengatu dute-lako, ez bada Korrika herriarena delako. Horregatik harritu eta mindu ninduten, bes-teak beste, Aingeru Epaltzak *Diario de Noti-ciasen* eta Joxe Arantzabalek bere blogean idatzitakoek. Dignidad y Justicia elkarte parapoliziala dela, azpimarratzen dut behin eta berriz, poliziek egiten dizkietelako auzi-tegietarako txostenak *Egunkaria* aferako

auzipetuek ederto dakiten legez. Espainiako justiziaren auzitegieta-ko hemerrotekara jo eta zerrenda eginez gero konturatuko gara ustez ETako biktimen elkarte dena euskaltzaletasunaren, euskal aber-tzaletasunaren eta bizi dugun gatazka politikoari elkarriketa bidezko konponbidea ematearen aurkako elkarte baina ez dena. Horregatik mintzen naute Korri-karen eta AEKren euskararen aldeko lan izugarria ezbaian jar-tzen dituztenen iritziek. Dignidad y Justicia, España y Libertad eta enparauak auziperatu egin behar genituzke bakearen eta euskaldu-non arteko elkarbizitzaren kontra darabilten etengabeko jardunaga-tik. Sinbolikoa baino ez bada ere, sartu ditza-gun milaka kereila euren aurka, egin diezaie-gun aurre behingoz. ■

«
Korrika, gatazka sozial, politiko
zein linguistikoen aldarrikapenerako
erakuslehiola izan da (...). Horregatik
mindu ninduten, besteak beste,
Aingeru Epaltzak *Diario de Noticiasen*
eta Joxe Arantzabalek bere
blogean idatzitakoek
»

TXANDAN

Castillo Suarez



Lanbide
baten gisa-
koa izan
daiteke lana bilatzea.

Lana bilatzea lanbide

Goizean goiz ordenagailua piztu, eta mezurik ote duzun begiratu. Ondotik, lana bilatzeko hel-bideetan sartu berrikuntzarik ba ote den begiratzeko. Curriculumak bidali intereseko eskaintzetara, baldin badaude. Elkarriketaren batera deitzeko zain egon. Aldi baterako lana eskaintzen duen enpresa batera joan, eta curriculumak entregatu. Administrazio publikoetako lan eskaintzak irakurri. Lan-poltsa batean izena eman, biga-rreren batean probak egin, eta hirugarren batean geratu

zaren hurrenkera begiratu. Tabernara joan, kafea hartu eta egunkarietako lan eskaintzen iragarkiak begiratu. Enple-gu zerbitzura joan, ilaran jarri, eta langabezia-txartela berritu. Ikastaroen zerrenda begiratu. Bakarren batean, izena eman, nahiz eta oso interesekoa izan ez. Egindako azkeneko ikastaroa curriculumean sartu. Autonomia egiteko aukerak aztertu. Balizko diru laguntzak. Orienta-tzailearekin taldeko bilkuretar joan, banan banako arre-ta egiteko baliabiderik ez dagoelako.

Lanpetuta egon egun guztia lanik ez duzula gehiegi-tan ez pentsatzeko. ■